

ETXEKO TXIKIAK BASAPIZTIA TXIKIAK

Testuak: FERNANDO REY, ANTONIO RUBIO,
XOSÉ BALLESTEROS eta HELENA GARCÍA

Irudiak: JONATHAN MILLER

Oihalezko liburuak, koloretan. 15 x 15 cm. 8 or. 18 €.

Etxeko txikiak (testuak euskaraz, gaztelaniaz, galegoz, katalanez)
ISBN 978-84-8464-459-0. Irakurtzen hasi aurretik.

Basapiztia txikiak (testuak euskaraz, gaztelaniaz, galegoz, katalanez)
ISBN 978-84-8464-458-3. Irakurtzen hasi aurretik.

Zazpi animalia ageri dira oihalezko liburu hauetako bakoitzean: etxeko animaliak "Etxeko txikiak" izenekoan (txakurra eta katua, jakina, baina baita untxia eta ardia ere, esaterako); eta "Basapiztia txikiak" izenekoan, hartza, azeria edo oreina besteren artean. Denak aise identifikatzen dira, ongi marraztuak eta ongi adieraziak baitaude, eta irribarre polit batekin, eta ume txikien samurtasuna eta afektua pitzen dute.

Oraindik irakurtzen hasi ez diren umeentzako material hauek irudiak irakurtzen hastea eta zentzumenak estimulatzea dute helburua: ikusmena, animaliak identifikatuz eta haien ezaugarri fisikoei erreparatuz; ukimena, ehun desberdinak ukituz, orrialdeak laztantzeko baitaude; entzumena, materialek ukitzean egiten dituzten soinu desberdinekin eta irakurlearen hitz eta kantuekin. Sentitzeko balio dute liburuek, baita niniarekin komunikatzeko eta, horri esker, gehienbat gozatzeko.

Proposamen soilak dira, kalitateko oihalez eginak. Ur hotzean garbitu daitezke, eta estanzazioen tintak ez dira toxikoak. Orrialde bakoitzak oihalezko ateragune bat du, irudi batetik beste batera pasatzeko. Liburu bakoitzak testu bat du, jolas poetiko bat, familiak jostatu daitezten bai hitzekin bai errimekin.

Estrategia honekin, "Etxeko txikiak" eta "Basapiztia txikiak" abiapuntu dira pertsonaiak lotuz istorioak eta jolasak asmatzeko.



- **Gala:** etxeko animaliak eta animalia basatiak.
- **Adin egokia:** irakurtzen hasi gabeko edo berriki irakurtzen hasitako umeak.
- **Nabarmentzeko modukoak:** zentzumeneren estimulazioa: ikusmena, ukimena, entzumena: psikomotrizitatearen garapena; lexikoa, komunikazioa.
- **Testu errimatuak:**
Euskaraz: Fernando Rey
Gaztelaniaz: Antonio Rubio
Galegoz: Xosé Ballesteros
Katalanez: Helena García

Jonathan Miller

(Quebec, Montreal)

20 urtetik gorako esperientzia du haurrentzako liburuen irudigile gisara. Haurrentzako arropen estanzazio-lanak ere egiten ditu.

